

Atzeraka gabiltza pausoari pauso. Gure oinatzak ezkutaketan jolasten dira. Kukuketan.

Elurrak, sekretuak balira bezala, gordean mantentzen ditu lurmendu aurretik.

Gero eta zailagoa da aurreko arrastoak bereiztea, harik eta denboraren zamak ikusiezin bihurtzen dituen arte.

Baina gure begi zoliek ez ikusteak ez du esan nahi izan ez direnik.

Hori ondo baino hobeto dakite atzeraka ibiltzen trebeak diren historialariek, arkeologoek, hizkuntzalariek edo genetistek.

Zantzuen lanbrotzeak galderak metatzea dakar berekin:

Noiz ailegatu ziren lehenengo gizakiak gure lurraldera? Nolakoa zen haien bizimodua? Ze ohitura eta sinesmen zituzten?

Hari beretik egiten dugu tira geure buruari galdetzeko nola komunikatzen ziren elkarrekin.

Zein mintzaira erabiltzen zuten? Noiz sortu zen euskara? Non? Zer heldu zaigu aurre-hizkuntza hartatik?

Eta, batez ere, nola iraun du gaur arte?

## EUSKARA JENDEA

Gure hizkuntzaren historia,  
gure historiaren hizkuntza  
HISTORIAREN ATARIAN

*Homo sapiens sapiens* izeneko gizaki mota duela 100.000 urte inguru atera omen zen Afrikatik.

60.000 urte geroago, Goi Paleolitoaren hastapenetan, gurera heldu zen.

Gizaki modernoak, modu berriak eta ugariak ekarri zituen harria lantzeko. Hezurren, boliaren eta adarren erabilera areagotu zuen. Ehizatze eta biltze teknika konplexuagoak ere garatu zituen. Horretaz gain, beste gizatalde batzuek baino komunikazio gaitasun hobea erakutsi zuen. Zinezko animalia sinboliko bihurtu zen.

Euskal Herria lur emankorra da Goi Paleolitoko arrasto arkeologikoei dagokienez. Hamaika haitzulo daude. Besteak beste, Askondo eta Santimamiñe ditugu

Bizkaian; Ekain eta Altxerri, Gipuzkoan; Alkerdi, Nafarroan; Etxeberri, Zuberoan; edo Izturitze, Baxenafarroan.

Nabarmenak dira haietan horma-artearen zein arte mugikorraren aztarnak. Izturitzen, esaterako, ehunka pieza agertu dira. Eskultura txikiak dira: bisonteak, hartzak, elur-oreinak, bai eta gizakiak ere.

Tamalez, ez dugu giza zantzu franko.

Neskuts Izagirre antropologoaren esanetan, *homo sapiens sapiens* taldeek, nora ailegatu ziren, prozesu demografiko desberdinak ezagutu zituzten.

#### *Neskuts Izagirre*

Kasu batzuetan euren tamaina handitu egin zen; beste batzuetan, aldiz, murriztu. Harremanetan jarri ziren aldameneko taldeekin; denboran zehar eta belaunaldiz belaunaldi, zenbait ezaugarri genetiko diluitu egin ziren; beste kasu batzuetan, berriz, kanpotik eratorri ziren beste ezaugarri batzuk... Eta horrek guztiak egin zituen gizaki modernoaren espezie eta populazio desberdinak.

*Homo sapiens*ak garaturiko kulturak luze iraun zuen, K. a. 10.000. urtera arte gutxi gorabehera. Sekulako emaitzak ekarri zituen, bereziki Garona eta Ebro ibaien artean, kultura franko-kantabrikoa sortu zuelarik.

Aldi hartan harpeetako artea agertu zen, adierazteko eta komunikatzeko modu berritzailea, oraindik ere beren teknika, zehaztasun eta edertasunez harrigarriak diren margoak haren espresabide nabarrienak direlarik.

Diego Garate arkeologoak, baina, ez du uste aise zehatz daitekeenik harpeetako artearen esanahia.

#### *Diego Garate*

Zentzu estetikoak agertu zen, bai eta zentzu artistikoa ere. Adibidez, Izturitzeko kobazuloan txistuak agertu dira. Orduan, musika zegoen. Beste aldetik, une hartan artea oso ugaria eta anitza zen. Arte mota ezberdinak zeuden, euskarri ezberdinetan gainera. Zer esan nahi zuen arte hark? Zaila da erantzun bakarra ematea. Agian gizarte hartan, gaur egun gertatzen den bezala, helburu ezberdinak zituen.

Euskal Herriko kobazuloetan, arte figuratiboaren adierazgarri garbia da horma-arteak.

Goi Paleolitoan hainbat aro ezberdin ezagutu zituen arte hau garapen intelektual aski garrantzitsu baten ondorioa izan zen, gainerako alorretan ere islatu zena: ehiza teknikan, gizarte antolaketan, sinesmen munduan... bai eta komunikatzeko moduan ere.

Hain zuzen ere, oker genbilzke artearen zentzu estetikoari bakarrik erreparatuko bagenio. Arte figuratiboa, deus bazen, komunikazio sistema zen.

#### *Garate*

Artea, seguruenik, gauzak kontatzeko egin zen. Adibidez, mitoak erakusteko edo transmititzeko, istorioak kontatzeko... edo, askotan esan den bezala, ehiza errazteko, erritual bat bezala, ehiza hobea izateko. Eta, zergatik ez, helburu askoz sinpleagoa izan daiteke kobazulo barruan bidea edo ibilbidea adierazteko. Zenbait kobazulotan nahiko argi ikusten da: amildegi edo zulo alboan aurkitzen ditugu margoak eta horrelakoak bidea erakusteko.

Goi Paleolitoko arteak oso arau zehatzei begiratzen die. 20.000 urtean honelako araei eusteko, zer duda egin, gizarte garatu baten beharra dago.

Eta gizarte honek komunikazio eta transmisio bide egokiak eskatzen ditu.

Hau da, hizkuntza bat.

### *Garate*

Arteak duen mezua transmititzeko hizkuntza behar da. Ideiak sakonak izan daitezke, ez dakit, bizitzari eta heriotzari lotutako ideiak, bizirauteko pentsamenduak... Horrelako ideiak transmititzeko, hizkuntzak nahiko garatua izan behar du.

Arteak, bada, komunikatzeko era sofistikatu baten eskizian jartzen gaitu.

Batek daki, agian ordukoak dira hitz batzuen erroak; onomatopeiak; zenbait oinarrizko elementuren izenak.

Baina pentsa genezake garai horretan euskara primitibo batean?

Historiaurrea aztertzeke dugun bide bakarra berreraiketa da, lekukotasunetatik eta teoria linguistikotik abiatuz. Berreraiketa honi aitzin-hizkuntza edo proto-hizkuntza esaten diogu, edo, gure kasuan, aitzineuskara.

Aitzin-hizkuntza guztiak denbora eta toki batean kokatu behar dira, diosku Joaquin Gorrotxategi Hizkuntzalaritza Indoeuroparreko katedradunak.

### *Joaquin Gorrotxategi*

Hori beste problema bat da, alegia, zein garaitakoa den protoeuskara. Izan ere, teknika berreraikitzaile horrek ez digu kronologiarik ematen, gutxi gorabeherako kronologia ematen digu. Intuizio kontua da neurri handi batean, hau da, aditu baten intuizioa, ez dago kronologia absoluturik. Ezin da esan guk eraikitako protoeuskara dela, adibidez, orain dela 3.000 edo 2.000 urtekoa. Ezin daiteke.

Euskararen aitzinekoa Paleolitoan kokatzea urrutiegi joatea da, aditu gehienek iritziz.

Hala ere, bada iluntasun horretara barneratzen denik.

Hipotesi batzuen arabera, azken izotzaldiaren garaian Europako populazioa Pirinioetara bildu zen aterpe bila, eta han garatu zen euskararen oinarria. Izotzaldia bukatuz, jende hori Europa osora zabaldu zen, garaiko euskara, era berean, harat-honat hedatuz, harik eta indoeuropar hizkuntza familiarren zabalpenak ordeztu zuen arte, Akitanian eta Pirinioetan izan ezik.

Toponimiari heltzen dion teoria honetako defendatzaileen aburuz, euskaratik azal daitezke Europan aurkitutako hainbat toki-izen eta, batez ere, ibai-izen.

Idea hauek, baina, ezeztatu egin dituzte euskalari gehienek.

#### *Gorrotxategi*

Hipotesi hori oso berezia da, inork ere ez du onartzen. Indoeuropeistek ez dute onartu, ez eta euskaldunok ere. Izen gehienak ezin dira euskararen ikuspuntutik esplikatatu.

.....

*Homo sapiens*-ak eboluzionatzen jarraitu zuen emeki-emeki.

Neolitoan sartu orduko, gaurko gizaki mota bera zen jada. Bizimodua ere mudatu zuen, hein handi batean klimaren epeltzeari esker.

Dirudenez, nekazaritzak eta abeltzaintzak ekarri zituzten aldaketa nagusiak. Hala ehizak nola fruitu bilketak toki zabalagoa utzi zieten emankorrakoak eta seguruagoak ziren produkzio-sistema berriei.

#### *Neskuts*

Orain dela 10.000 urte giza populazioetan aldaketa garrantzitsu bat, iraultza bat, gertatu zen. Iraultza hura Neolitoaren agerpena izan zen. Ordura arte ehiztariak eta harrapariak ziren populazioak ekoizle bilakatu ziren, hau da, nekazari eta abeltzain bilakatu ziren. Eta hark aldaketa ikaragarri batzuk suposatu zituen populazioentzat. Aldaketa garrantzitsu haietariko bat, ikuspuntu genetiko batetik, izan zen populazioen tamainak izugarri emendatu zirela.

Bizitzeko era berriak sakonki sustraitu ziren aro honetan, nolabaiteko ongizate aldia ekarriz ekonomian, pentsamendu, sineste eta ohituretan ere islatuko zena.

Pentsa liteke gure kulturaren oinarritzko ideia eta mundu ikuskera asko, kosmogonia alegia, Neolitoan finkatu zirela.

Hilen lurperatzeak laga digu Neolitoko testigantzarik fidelena. Hainbat zutarri elkarren alboan eta gainean, monumentu megalitoaren estalgarri, harlauza etzan bat: trikuharriak.

#### *Garate*

Artea, bat-batean, belaunaldi gutxitan desagertu zen. Ehiztari-biltzaileek beste sinbologia bat garatu zuten. Behin ekoizpen sistema berrian sartuta, hilen munduak garrantzi handia hartu zuen.

Euskal Herrian aldeak ikus ditzakegu trikuharrien artean. Ipar partekoak, Gipuzkoan dagoen Sagastietako Lepoa kasu, txikiak izan ohi dira; Arabako Lautadan edo Nafarroako erdialdeko inguruetan aurki daitezkeenak, ordea, handiak eta konplexuak dira. Farangortea eta Sorginetxea adibide egokiak ditugu.

-----

Neolito garaikoak ere badira nekropoliak, hildakoen hiriak.

Nafarroa Garaian dauden Los Cascajos eta Paternainbidea nekropoliak adibide ezin hobeak dira ulertzeko Neolitoak Euskal Herrian izan duen garrantzia. K. a. 6.000 eta 6.500 urte bitartean dataturik, Iberiar Penintsulako zaharrenak dira.

Nekropoliak herrixketatik kanpo egoten ziren beti. Nafarroako indusketetan, herrixkaren aztarnak ere aurkitu dira. Bertan nabariak dira abeltzaintzaren eta nekazaritzaren arrastoak.

### *Neskuts*

Aztarnategi horiek oso garrantzitsuak dira Iberiar Penintsulan. Izan ere, Penintsulan dauden Neolito garaiko aztarnategi zaharrenak dira. Horrek esan nahi du Neolitoa ez zela berriki heldu Euskal Herrira, baizik eta Europako gainontzeko populazioetara heldu zen garai berean.

Ikerketa genetikoek sendotu egiten dute ikuspuntu arkeologikoa. DNA mitokondrialeko analisiek hala frogatzen dute. Horretarako, genetistek J deritzan markaria erabiltzen dute.

Markaria, gizabanakoen artean aldakortasuna adierazten duen gure genomako edozein eskualdea da. Genetistek ikertu egiten dute, besteak beste, ezaugarri fisiko, biokimiko, biologiko eta ebolutiboak aztertzeko.

J markaria, egin diren ikerketen arabera, Ekialde Hurbileko populazioetan sortu zen orain dela 10.000 urte. Eta Ekialde Hurbilean sortu zen garai hartan nekazaritza, Neolitoa.

Beraz, markari genetiko hau Neolito garaiko nekazarien hedapen geografikoaren seinale izango litzateke.

### *Neskuts*

Neolito garaiko eta Neolito osteko zenbait populaziotan ikusi dugu J markari horren maiztasuna dela gaur egunekoa baino handiagoa. Zer esan nahi du horrek? Iraganean, Neolitoko hedapenaren momentu horretan, Neolitoko markari horren maiztasuna handia dela Euskal Herrian. Beraz, Neolitoak ere izan du ekarpen genetikoa Euskal Herrian. J leinuaren azterketak ondo eginda baldin badaude, horrek adieraziko luke Neolitoa Euskal Herrira heldu zenean heldu zena ez zela soilik kultura Neolitikoa izan, hau da, nekazaritza eta abeltzaintza, baita Ekialde Hurbileko jendea ere.

Beste hitz batzuekin esateko, euskaldunek, gainontzeko herriek bezala, migrazio-mugimendu prehistoriko desberdinen eragina izan zuten. Ez ziren inolaz ere isolaturik egon.

---

Neolitoa harri landuaren aroa da. Lehenagoko harrizko tresna traketsak askoz zehatzagoak bihurtu ziren, erreminta finagoak eta leunagoak.

Pentsa liteke gaur arte iraun duten lanabes batzuen izenek Neolitoan izan dezaketela sorburua.

Horrek, hala ere, ez luke euskara bereziago bilakatuko beste hizkuntza batzuen aldean.

#### *Gorrotxategi*

Esaten da: euskara Neolito garaikoa da gorde dituelako tresnak esateko... esate baterako, 'aizkora', 'aiztoa', 'aitzurra', 'guraizeak' eta halako gauzak, daukalako 'aitz-' erroa, haitz edo harria esan nahi duena.

#### *Gorrotxategi*

Baina horrek ez du ezer esan nahi. Munduan hamaika hizkuntzak dituzte haitz edo harri izenaren edo hitzaren gainean tresna asko eratuak.

Hitz askok dituzte antzinate handiko erroak.

Erro haietako batzuk Neolitoan bizirik zeudela onartzeko problemarik ez dute hizkuntzalariek. Alde batetik, gorputz-atalak ditugu, hala nola 'hatz', 'oin' edo 'buru'. Bestetik, 'or', 'behi', 'zaldi', 'ardi' eta 'ahuntz' animalia-izenak ere oso zaharrak izan litezke. Hitzen sustraiak beti ere.

Egun, han-hemen egiten diren hizkuntza guztiek dituzte Neolitora daramatzaten arbasoak.

#### *Gorrotxategi*

Topiko hutsa da esaten denean, adibidez, euskara dela Neolito aroko hizkuntza bat. Hau da, honekin esan nahi dut hizkuntza primitiboa dela, edo jatorria oso urruti duela; eta, aldiz, latina edo hizkuntza indoeuroparrak, geroago etorri diren beste batzuk, hizkuntza modernoagoak direla, ez direla Neolito garaikoak. Honek, horrela esanda, ez dauka batere zentzurik.

---

Harri Aroari Metalen Aroak jarraitu zion.

Garai hartakoak dira harrespilak edo mairu-baratze gehienak.

Eskuarki bakarka badaude ere, hainbat lekutan multzoka ageri dira.

Hori da, hain zuzen, Baxenafarroako Okabe mendiko kasua. Bertan Ilarrita dago, 26 harrespileko multzoa.

Jacques Blot, aspaldi Biarnotik Donibane Lohizunera etorritako medikua eta arkeologoa da.

Eusko Ikaskuntzako kidea eta Herri-Harriak Arkeologia Elkartearen sortzailea, luze darama Euskal Herriko monumentu megalitikoak induskatzen eta arakatzen.

### *Jacques Blot*

Okabeko nekropolian errausketaren ehorzte-erritua egiten zen, hau da, hilak bertan erretzen ziren. Erritu hura egiten zutenak, Kobre, Brontze eta Burdin aroetan bizi izan ziren; hau da, gutxi gorabehera K. a. 2500. urtean burutu zuten, bai eta askoz geroago ere. Jende hark nekazaritza, abeltzaintza eta transhumantzia ezagutzen zituen; egungo euskarara garamatzen aitzineuskara batean mintzatzen ziren; eta bizimodu espiritual aberatsa zuten, nekropoli horretan ikus daitekeen bezala.

### Blot

Errausketa errituak bururatu diren 3.000 urte hauei begiratzen badiegu, ohartzen gara mendian hil guztiek ez zutela oroitarrik izan. Pribilegiatu batzuek baizik ez zituzten hilobiak ukan. Segur aski, trebetasunen arabera gizarte-hierarkia zegoen artzainen munduan. Ez dakigu zeintzuk ziren irizpideak, baina izan baziren.

### Blot

Okabeko nekropolia, beste edozein nekropoli bezalaxe, leku sakratua zen, eta irizpide zenbaiten arabera hautatua. Bereziki, ortzimugaren gaineko bista zabala zeukan leku irekia behar zuen eta, gehienetan, sortaldeari begira.

### Blot

Mapa honetan Pirinioetako ardatza ikusten da, Euskal Herria errausketa nekropoli guztiekin. Biarno aldera eta Mediterraneora hurbildu arau, berriz, nekropoliak gutxiago dira. Oroitarri horiek euskal kulturakoak dira bereziki.

### Blot

Nekropolien egileek ez zituzten soilik harriak lurtean sartzen eta zirkulu bat osatu. Lehenik, zulo bat egiten zen, batzuetan 7-8 metro zabal; lur guziaz kentzen zen oinarriaraino, oinarriko legarraraino. Kasu honetan, oinarriko legarraren azpian zegoen buztina hartu eta beste geruza bat ezartzen zuten hemen... Ekintza sinbolikoa zen. Buztin zola horren gainean errauskak ematen zituzten eta gero, erdian, egur-errauts pila handiagoa. Hura harriekin estaltzen zuten eta ondoren harri pila hori zolatik hartutako buztin geruza batez estaltzen zen. Harriak horrekin estaltzen ziren. Eta bukaeran baizik ez zen lurrez estaltzen. Dena bukatuta zegoenean, han ziren artzainek beren lagun zenduak omentzen zituzten harrespilaren gainera harri txikiak botatz. Hori ere bazen ekintza sinbolikoa.

### Blot

Azkenik, ukabila bezain handiak diren arrautza formako harriak ere aurkitu dira, inguruko lauzetan pausatuak direnak. Harriek arrautza sinbolizatzen zuten. Arrautza, berriz, iraganaren eta etorkizunaren sinboloa zen. Beraz, hor ezarria izan zen harrizko arrautzak etorkizun guztia irudikatzen zuen, trikuaharrien ekialdeko orientazioan iragartzen zen ber-bera. Berriztapena. Arrautzean biziaren berriztapena ageri da.

### Blot

Euskal Herriko errausketa oroitarri bakoitzak pertsona bakar batentzat egina dirudi. Trikuharriak bezalako monumentuetan, aldiz, hildako bat baino gehiago ehortzen zen. Denboran zehar trikuharriak berriro erabil zitezkeen, baina harrespilak pertsona bakar batentzat ziren. (...) Gehienetan ez dago hezurrik, edo oso gutxi. Monumentu haiek ez ziren, beraz, hilobiak, zenotafioak baizik, hau da, norbaiten omenez eraikitako oroitarriak.

#### Blot

Historiaurreko errausketa erritua ez zen Kristo osteko garaiaren etorrerarekin gelditu. Izan ere, Euskal Herriaren kristautzea XI.-XII. mendeetara arte ez zen osoki gertatu, misiolariak ez baitziren euskaldunak. Horregatik euskaldunek eta, bereziki, artzainek ehorketa errituak atxiki dituzte. K. o. 1000., 1200., 1500. urtera arte, antzinakoen errituak segituz erraustu ziren hilak gure mendietan, Historiaurreko errituak segituz. Herria kristautu zelarik eta erritua desagertu zelarik, leku sakratu horien memoria euskaraz gelditu da, izenetan, hala nola Ilarrita. Hildakoen tokiei egiten diete erreferentzia eta euskaldunen memorian gelditu dira: ahozko memorian eta, are garrantzitsuagoa, bihotzeko memorian.

.....

Metalen Aroaren atalasean, herri indoeuroparrak zabaldu ziren Europara.

Zehatz-mehatz nondik ez badakigu ere, herri hauek Asia aldetik etorri ei ziren gutxika-gutxika. Zeharo migrazio geldoa izan zen. Milaka urte hartu omen zituen.

Bada nekazaritza eta abeltzaintza, European, herrion agerpenarekin lotu dituenik.

Hipotesi honen arabera, produkzio-sistema biak menderatzeak bultzatu zituen herri indoeuroparrak European barrena hedatzera, eta ez konkista militarrek.

Lehenago zeuden herriek bizimolde berriak ez ezik, indoeuroparren hizkuntzak ere bereganatu zituzten.

Kultura iraultza honetan, aurre-indoeuropar mintzaira gutxi batzuek iraun zuten bizirik, haien artean euskarak.

.....

Indoeuroparren etorrera baino aurreragoko hizkuntzen paisaia lainoturik ageri zaigu; ezer gutxi dakigu.

Dakigun apurra, gainera, greziarren eta erromatarren testigantzei zor diegu.

#### Gorrotxategi

Garbi dago Iberiar Penintsulan, zeltieraz aparte, bazeudela beste hizkuntza batzuk indoeuroparrak ez zirenak. Hori garbi dago. Bata iberiera da eta bestea tartesiera da. Noski, lehenago esan dut orduan ez zela euskaraz idazten. Hala ere, hizkuntzak



hondar batzuk utzi ditu. Eta, hortaz, esan daiteke Antzinatean, hala Iberiar Penintsulan nola Akitanian, hau da, iparraldean, euskaraz hitz egiten zela.

Euskararen hegoaldean, bada, tartesiera eta iberiera zeuden.

Tartesiera, izan, izan zela ezagutzen da, bai eta, iberierarekin gertatzen den bezala, hizkuntza horretan idazten zutela. Iberiar Penintsulan noiz azaldu eta noiz desagertu zen ez dakigu, ordea.

Iberierari buruz zerbait gehiago dakigu. Hala ere, haren jatorria guztiz ezezagun mantendu da orain arte.

Hizkuntzalari batek baino gehiagok euskara eta iberiera senidetu nahi izan ditu. Hain zuzen ere, bien arteko hurbiltasun fisikoak eta beren aurre-indoeuropartasunak bide eman zuen mintzo bera edo, bederen, ahaide zirela pentsatzeko. Teoria honek luze iraun du. Izan ere, bi hizkuntzetako berba batzuk oso antzekoak dira.

‘*Bios*-bihotz’, ‘*hisca*-neska’, ‘*ildun*-ilun’... Iberieraren eta Euskararen arteko hitz batzuen antzekotasuna, baina, harremanen ondorioz sortua omen da.

Egun hizkuntzalariek ukatu egiten dute ahaidetasuna. Joakin Gorrotxategiren ustez, ahaideak balira, euskara lagungarria izango litzateke iberiera deszifratzeko eta ulertzeko. Iberiera, irakurri, irakurri egiten dugu, baina ez dugu konprenitzerik.

Gorrotxategi

Euskara eta iberiera hurbileko hizkuntzak izango balira, euskarak laguntza emango lioke iberierari hizkuntza hau ulertu ahal izateko. Aldi berean, iberierak ikaragarritzko laguntza emango liguke guri euskararen historiaurrea argitzeko. Baina gauzek iluntasun handian segitzen dute. Azaleko gauza batzuk daude, ustez antzekotasun batzuk, baina, noski, hizkuntzalaritza konparatuak ezin du horrekin aurrera egin.

Iberiera, dena den, ez da kasu bakarra.

Hizkuntza hamitoak, Kaukasoko hizkuntzak, hizkuntza finougriak... Euskarari nonahi bilatu zaizkio ahaideak.

Baina beharbada, Jose Miguel Barandiaranek proposatu zuenez, ez dugu zertan irten kanpora euskararen sustraiak kausitzeko. «*Gu ez gara inongo*», esan zuen antropologo eta arkeologo ataundarrak.

«Ez da, askok pentsatzen duten bezala, urrundik etorria, edo Kaukasotik, edo Afrikatik, edo Siberiatik. Ez. Ez da batere gauza horren itxurarik ere. Hemen guk dakiguna da, orain dela beharbada 5000 urte, behintzat, bazela euskera».

Gisa berean, Koldo Mitxelena hizkuntzalariek ere adierazi zuen euskara ez zela kanpotik etorri:

«Euskara ez du guregana inork ekarri. Lehenbiziko lekukoak izen propioak ditugu: leku, pertsona eta jainko-izenak. Bai idazle klasikotakoak eta baita ere, batik bat, Pirinioen bi aldeetan aurkitu diren izkribuetan agertzen direnak».

.....

Herri indoeuroparren etorrerak hainbat galdera planteatzen dizkigu: zergatik hizkuntza batzuk desagertu ziren eta beste batzuek, aldiz, bakan batzuek, iraun zuten besterik ez bada mende batzuetan?

Nola lortu zuen euskarak irautea indoeuroparrak azaldu ostean?

Ez dirudi zaila galdera horri taxuzko erantzuna emateak: euskaldunek, bata bestearen atzetik etorritako herri guztiekin jakin dute bizitzen, elkar hartzen, egoera berrietara moldatzen, beti ere jatorrizko mintzaira baztertu gabe. Horregatik ageri da indoeuroparraren itsasoan hizkuntza uharte bat bezala.

-----

Burdin Aroaren atarian, zelta herria izan zen gurean herri indoeuroparren aitzindaria.

Zelten lehen emigrazio handia Rhin ibaiaren aldetik etorri zen K. a. XI. mendearen inguruan. Gaur egungo Frantziako iparraldea zeharkatu ondoren, Akitaniara eta Iberiar Penintsulara sartu ziren hainbat tokitatik.

Hasierako hedatze honek arrasto txikia utzi omen zuen euskararen herrian: zeltek Ebro ibaiaren hego aldera eta, batez ere, Mediterraneora jo zuten.

Hala ere, K. a. lehen milurtekoan zehar, komunitate zeltek aldaketa ugari ekarri zuten gure lurraldera, besteak beste, errausketa sisteman hilobiratzeko orduan, etxeetako itxituretan, zeramikan eta metalurgian.

#### *Garate*

Zeltek utzitako aztarnak edo materialak aztertzea zaila da. Argi dago Euskal Herriko hegoaldean, Ebro ertzean, Araban, Nafarroan... eragin handia izan zutela baina, aldiz, Kantauri aldean zailagoa da, aztarnategiak askoz pobregoak dira, material gutxi daukagu eta, noski, ezin dugu esan material hauek zeltenak ala beste etnia batenak diren.

Ez zen denbora luzea joan hizkuntza zeltek euskara inguratu arte, hala iparraldean nola hego-mendebaldean.

#### *Gorrotxategi*

Eta ez bakarrik inguratu: ematen du zeltiar hizkuntzak hizkuntza indartsuak zirela, hau da, jendeak barra-barra hitz egiten zituen, ez zeuden hil-zorian inondik ere,

behintzat erromatarrak etorri baino lehenago. Zenbait izen, hitz, jende... euskara egiten zen eremuan sartu ziren, gaur egun, gure kasuan, aro modernoetan euskara egiten den herrian gaztelera, frantsesa edo beste hizkuntza batzuk sartu egiten diren bezalaxe, eta elebidunak sortzen dira eta halako kontuak. Eta ematen du Antzinatean ere hala gerta zitekeela.

Toponimoek, hau da, toki-izenek ematen digute harreman horien berri. 'Deba' hitza, barbarako, jatorri zeltakoa da. Hitzez hitz '*jainkoen ibaia*' esan nahi du. 'Uxama' ere hitz zelta da, eta badirudi Ultzama handik datorrela. 'Nerbioi', 'Lezama', 'Toloño' eta 'Zegama' toponimoak ere ba omen dira zelta jatorrikoak.

Toki-izenak alde batera, bestelako maileguak ere jaso ditu euskarak. Itxura batean, zeltek ekarriak dira 'gezi', 'gori', 'landa', 'maite' edo 'mando' hitzak.

Pentsatzekoa da mailegu gehiago igaro zirela euskarara, baina, segur aski, latinekoek ordeztuko zituzten geroago.

-----

Zelten eragina K. a. III. mendera zabaldu zen, erromatarren etorrera arte.

Erromatar Inperioaren zabalkundea historiaurrearen bukaeratzat hartzen da. Kultura honen teknikak, administrazioak, zuzenbideak eta, oro har, bizimoduak geroko Europa moldatu eta baldintzatu zuten, gaur egun arte luzatzen den mundu ikuskera nagusia finkatuz.

Erromatarrak agertzerako, euskara jendeak bide bat zuen egina jada.

Gure hizkuntzaren lehen testigantza idatziak, pertsona-izenak eta jainko-izenak, erromatarren harrietan eta aldareetan azaltzen dira. Guganaino ailegatu diren berbok atzera begiratzeko gonbita egiten digute.

Gorrotxategi

Hizkuntza isolatua denez gero, ez dugu kanpoko laguntzarik aurkitzen. Beraz, hipotesi ekonomiko bat aplikatu daiteke. Hau da, nola ez dagoen probatua inondik ere beste toki batetik etorri denik, orduan hipotesi ekonomikoa da migrazioak ez erabiltzea eta pentsatzea hemen zegoela, ez dakit, beste 1.000 bat urte gutxienez ere.

Hizkuntzalaritza konparatuaren eremuan, bada, euskarak ez du lagunik. Ez dago egun Europan dauden hizkuntza-familien barruan.

Baina enbor bereko adarra ez izateak ez digu ulertarazi behar, ikusi dugun bezalaxe, harremanetan egon ez denik beste hizkuntza batzuekin.

Gorrotxategi

Euskara Pirinioetako mendebaldeko parte horretan dago kokatua. Eta beti izan da jendearen igarolekua.

Euskararen lurraldeko bizilagunak, behin baino gehiagotan adierazi denaren kontra, ez dira sekula bakarturik izan.

### *Neskuts*

Genetikak honako hau ikusten du gaur egun: euskaldunek badaukate berezitasun linguistiko hori, baina badirudi, markari berriak eta teknika berriak aplikatuz, ez dagoela berezitasun genetiko handirik. Gure taldeak egin dituen analisisietan iksusi dugu euskal populazioa, guk analizatutako populazioak... nolabait Kantauri isurialdean dauden beste populazio batzuekin sailkatzen direla.

Hitz hauek berresten dituzte orain dela urte asko gure lehen adituek egindako baieztapenak: «*Isolamenduari buruz ari bagara, euskaldunok ez gara inondik inora adibide egokia*», esplikatu zuen Telesforo Aranzadi arkeologoak 1934an. Eta gisa berean mintzatu zen Jose Miguel Barandiaran hogeitau urte geroago.

Ezagutzen ez den antzinetatik hemen kokatuak, euskaradunak hainbat herriren eta kulturaren ondoan bizi izan ziren Historian sartu baino lehen.

Europako mendebaldean ezagunak diren kultura horietako mintzaira gutxi batzuek jarraitu omen zuten bizirik: iberierak eta, agian, etrurierak, pikterak eta tartesierak ere bai.

Hizkuntza hauetan mintzo ziren gizon-emakumeek aldi batez eutsi zioten beren mintzairari.

Aldi batez, bakarrik. Mende batzuetan kasurik onenean.

Ez zuten hizkuntza indoeuroparren enbata gainditu, eta betiko desagertu ziren.

Euskarak, ordea, iraun egin zuen.

Burdin Aroaren amaierarako, garai berrietara egokitzen ohituta, euskara jendea Historiara sartzeko gertu zegoen.